

Intraneta estreinatu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak

2014/01/16


Fakultatean lan egiteko modua errazte aldera, Internet tresna berria jarri du abian Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak: **Intraneta**. Interneteko baliabide horren xedea da erraztea lana ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileei eta erosoagoa egitea erabiltzaile horien guztien harremana unibertsitatearekin. Horretarako, gaurtik aurrera, **Internet helbide bakarrean bilduko dira HUHEZI fakultateak eskaintzen dituen *online* zerbitzu guztiak**.

Erabiltzailearen profil eta premien arabera (ikaslea, irakaslea edo administrazio eta zerbitzuetako langilea), **Intranetak eskainiko ditu aukera desberdinak**. Esaterako, ikasleek izango dituzte eskura MU Apps-ak (Drive tresnak: posta helbidea, testu prozesatzailea...), Idazkaritza birtuala, Biblioteka, Baliabideen erreserba, Fitxategia (dokumentuen biltegia), Ikasle gunea, Mudle, Campus birtuala, Gela birtuala eta Psikopedagogia graduaren txokoa. Fakultateko langileei, bestalde, esandakoei gehituko zaizkie kudeaketarako hurrengo tresnak: Hudle, Arasa, Lan dedikazioa, Kude eta Curriculumak kudeatzeko aplikazioa.

Gainera, aipatutako baliabideez gain, **Agenda eta Albisteen txokoa** ere egongo dira Intranetean. Agendan, finkatuko dira ikasleek kontuan hartzeko moduko data eta une mugarrak (ekitaldiak, jardunaldiak, egutegi akademikoarekin lotutakoak...). Albisteen txokoa, ostera, jasoko dira erabiltzaileentzat interesgarriak izan daitezkeen informazioak.

HUHEZIn Intranetera sartzeko bi bide daude:

- **Fakultateraren webgunetik, "Intraneta" estekatik:**
<http://www.mondragon.edu/eu/huhezi> (ezkerreko zutabea, barrenean, "**Barne loturak**" atalean)
- **Intranetaren URL helbidetik bertatik:** <http://intraneta.huhezi.edu/>



Fakultateak eskaintzen dituen online baliabide guztiak daude eskura Intranet berrian.